

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Atzera egitearen ebazpena espediente zenbakia: 18-71-0071 Trukatze zerbitzua autonomia erkidegoekin Barria eta Zuhatza aterpetxeetan

AURREKARIAK

“Trukatze zerbitzua autonomia erkidegoekin Barria eta Zuhatza aterpetxeetan” izeneko espediente hori ikuskatu eta aldeko irizpena jaso zuen Kontuhartzailatza Zerbitzutik 2018 martxoaren 5ean, eta hasiera ebazpena eman zuen Gazteriaren Foru Erakundeko zuzendari-kudeatzaileak 2018 martxoaren 6an.

Xedapen teknikoen eta administrazio klausula berezien agiriak, gastua eta esleitzeko prozedura eta era Kontratazio Organoak onartu zituen 2018 martxoaren 6an, esleipen prozedura IREKIZ, SPKLTBren 161.2 artikulua arabera.

Aurrekontu aplikazioa: 71.1.00.10.00.227.99.03

Urtea: 2018

GERTAKARIAK

2018 martxoaren 14an, zegokion lizitazio iragarkia argitaratu zen ALHAOko 31. zenbakian.

2018 martxoaren 14an, Kontuhartzailatza Zerbitzuak jakinarazi zion GFeri, lizitazio iragarkia 2018ko martxoaren 9a baino geroago argitaratu zela egiaztatu ondoren –sektore publikoko kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea indarrean jarri zen eguna-, ulertzen dela kontratazio espedientea deialdia argitaratzean hasi dela; ondorioz, espediente hori arautzen duen araudia 9/2017 Legea dela eta ez SPKLTB.

Aurreko gertakariei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Kontratazio espediente horri aplikatu behar zaion araubidea azaroaren 8ko sektore publikoko kontratuen 9/2017 Legea da eta hura osatzen duten gainerako legezko araudia.

Bigarrena. Lehenengo xedapen iragankorrak ezartzen duenez, ulertuko da kontratazio espedienteak hasitzat jotzen direla baldin eta kontratua esleitzeko prozeduraren deialdia argitaratuta badago.

Hirugarrena. SPKLren 152.1 artikulua arabera, kontratazio organoak kontratu baterako deialdia egin eta ondoren kontratua egiteari uko egiten badio, edo kontratua esleitzeko prozedura berriz hastea erabakitzen badu, hautagaiei eta lizitatzailerik jakinaraziko die.

Laugarrena. SPKLTBren 152.2 artikulua arabera, kontratazio organoak esleipena egin aurretik bakarrik erabaki dezake kontratuari uko egitea edo prozeduran atzera egitea.

Bosgarrena. SPKLTBren 152.4 artikulua arabera, prozeduran atzera egiteko, kontratua prestatu edo esleipen-prozedura arautzeko arauetan zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat egon behar du, eta espedientean justifikatu behar da atzera egiteko arrazoia. Atzera egiteak ez du eragotziko berehala beste lizitazio-prozedura bat hastea.

Seigarrena. SPKLren 63. artikulua arabera, esleipen prozeduraren atzera egitea kontratatzailearen profileen argitaratuko da.

Horregatik guztiagatik, hau:

EBAZTEN DUT: onarpena ematea atzera egiteari espedienterako hasitako prozedura irekian, SPKLren 152.4 artikuluan jasotzen denaren arabera, 9/2017 Legea indarrean jarri ostean argitaratu delako; ondorioz, espedienteak lege horretan xedatutakoak arautua egon behar zuen, kontratazio agiriak berari egokituz.

Ebazpen honek ez du administrazio bidea agortzen eta gorako errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluari, bai eta kontratazio organoari ere, hilabeteko epearen barruan, ebazpen hau modu fidagarrian jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita; hori guztiori, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (urriaren 2ko BOE), administrazio prozedura erkidearenak, 121. artikuluan xedatutakoa betez.

GFEk ebazpen hau jakinaraziko die interesdunei, administrazio prozedura erkidearen Legearen 40. eta 42. artikuluetan eta SPKLren 63. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ebazpen hau ematen da ekainaren 8ko Diputatuen Kontseiluaren 26/2010 Foru Dekretuak (ALHAOko 67. zenbakia) zuzendaritza-kudeatzailetzari eman zizkion eskumenak baliatuz.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 15a

Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea
JOSEBA KOLDO PEREZ DE HEREDIA ARBIGANO